

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ELGOIBARKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko apirilaren 29an hartu zuen Akordioaren laburpena. Akordio horren bitartez onartu zen, gazteei Udalerrian ohiko etxebizitza alokatzen laguntzeko, norgehiagoka bidezko dirulaguntzen deialdia. BDNS (Identif.): 452627.

Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa, berriz, Dirulaguntzen Datu Base Nazionallean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>) dago ikusgai.

Lehenengoa. Dirulaguntzaren xedea.

Neurri batean, 18 eta 35 urte bitarteko gazteei, 2019. urtean Elgoibarko udalerrian alokairuko etxebizitzaren bat dutenei, ohiko bizitoki gisa erabiltzen diren etxebizitzaren alokairuak ordaintzen laguntzea.

Bigarrena. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak.

Onuradunek, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean oro har ezarritako baldintzez gain, honako baldinza espezifiko hauek bete beharko dituzte:

Alokairuko kontratu baten titular izatea (prestazioaren zenbatekoa kontratuaren titular diren maizter guztien artean zati-tuku da).

Errentatzailearekin familia harremanik ez izatea, gutxienez, odolkidetasuneko edo kidetasuneko 2. mailara arte.

Etxebizitzan erroldatuta egotea.

Jabetzako etxebizitzarik ez izatea (herentzia edo dohaintza bidez eskuratu den etxebizitzaren titularkidea izan ezik, baldin eta titularkide bakoitzari dagokion ehunekoak % 50 gainditzen ez badu, eta etxebizitzaren partaidetzako balioak 50.000 €-tik gorakoak ez badira).

Eskaera egiten den unean, etenik gabe, gutxienez 2 urteko antzinatasunarekin Elgoibarko udalerrian erroldatuta egotea; edo bestela, udalerrian, etenik gabe, 5 urtez erroldatuta egon direla egiaztatzea. Nahikoa izango da titularkideetako batek baldintza hau betetzea.

18-35 urte izatea, inoren kargura dauden adingabeak izan ezik.

Urtean 32.000 €-tik gorako sarrera gordin haztaturik ez izatea, ezta 600 €-tik gorako kapital higigarriaren errentarik ere.

Elgoibarko Udalaren zergen eta zigorren ordainketak egunean izatea, eta gainerako zerga betebeharrak (Foru Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea.

Hirugarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Hileroko alokairuaren prezioaren % 50, erkidegoaren eta etxebizitzaren eranskinen gastuak kenduta. Laguntzak, gehienez ere, 250 €-ko balioa izango du hileroko.

AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR

Extracto del Acuerdo de 29 de abril de 2019 de la Junta de Gobierno Local, por la que se aprueba la convocatoria para la concesión, mediante el régimen de concurrencia competitiva, de las subvenciones correspondientes a la ayuda a jóvenes para el alquiler de vivienda habitual en el Municipio. BDNS (Identif.): 452627.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>):

Primero. Objeto de la subvención.

Contribuir, en parte, al pago de las rentas del alquiler de la vivienda destinada a domicilio habitual de jóvenes de entre 18 y 35 años, que dispongan de una vivienda en régimen de alquiler en el término municipal de Elgoibar en el año 2019.

Segundo. Requisitos para solicitar la subvención.

Las personas beneficiarias deberán cumplir, además de los señalados con carácter general en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones, los siguientes requisitos específicos:

Ser titulares del contrato de alquiler (la cuantía de la prestación se dividirá por el número de inquilinos titulares del contrato).

No tener vinculación familiar con el arrendador hasta un 2.º grado de consanguinidad o afinidad.

Estar empadronados en la vivienda.

No poseer vivienda en propiedad (salvo que sea cotitular de vivienda adquirida por herencia o donación, en las que ninguno de los porcentajes de cotitularidad supere el 50 % y el valor de las participaciones en vivienda no superen los 50.000 €).

Estar empadronadas en el municipio de Elgoibar, con una antigüedad mínima de 2 años de forma ininterrumpida en el momento de presentar la solicitud o haber constado empadronado en el municipio a lo largo de 5 años de forma ininterrumpida. Basta con que solo uno de los titulares cumpla con este requisito.

Edad entre 18-35 años, salvo los menores al cargo.

No tener ingresos superiores a 32.000 € brutos anuales ponderados y rentas de capital mobiliario superiores a 600 €.

Estar al corriente del pago de tributos y sanciones del Ayuntamiento de Elgoibar, y demás obligaciones tributarias (Hacienda Foral) y de seguridad social.

Tercero. Importe de la subvención.

50 % del precio del alquiler mensual, descontando gastos de comunidad y anejos de vivienda, con valor máximo de 250 € mensual.

Laugarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua.

Epea: deialdi honen laburpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu, eta hurrengo egunetik aurrera. Epea 2019ko maiatzaren 31n bukatuko da.

Lekua: Herritarren Arreta Bulegoan (Santa Ana kalea 2) edo modu elektronikoa.

Elgoibar, 2019ko apirilaren 30a.—Ane Beitia Arriola, alkatea.
(2809)

Cuarto. Plazo y lugar de presentación de solicitudes.

Plazo: comienza al día siguiente al de la publicación del extracto de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y finaliza el 31 de mayo de 2019.

Lugar de presentación: Oficina de Atención a la Ciudadanía (Santa Ana kalea, 2) o electrónicamente.

Elgoibar, a 30 de abril de 2019.—La alcaldesa, Ane Beitia Arriola.
(2809)